

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

zuzendariari@egunkaria.com



Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain

Nora joan haiz, Txomin?

Jabier Muguruza • IRUN

Hi Txomin, joan haizela erran zidatek. Abisatu gabe, deus ere erran gabe, ni kanpoan, Madrilen, nintzen bitartean bertze norabaitera joan haizela. Ez hago-ela Beran jadanik. Betirako joan haizela. Baina nora demontre joan haiz, Txomin? Non demontre hago orain, bada? Ez gaituk, berriz ere, sekulan ikusiko? Ez diagu, beraz, Beñardorekin afari famatu hori inoiz eginen? Ez didak, bertze inoiz, samurtasunez adarrik joko? Eta eskopeta, ze eskopetarekin desfilatuko diat, bada, aurten San Martzialetan? Joder, Txomin, gauzak ez dituk horrela egiten. Ez duk posible. Gainera, ez huen

momentua! Tira, tontokeriak erraten hasia nauk... Triste utzi nauk Txomin, oso triste. Negar ere egin diat. Benetan. Hala ere, gauza bat jakin ezak: nire baitan beti izanen duk leku berezi bat hiretzat. Horretaz ziur egon, Txomin, laguna.

Galdakaoko ospitalean ere euskaraz

Aitziber Olabarrieta (Galdakaoko ospitaleko LABeko kidea)

Gezurra badirudi, ospitale honetan oraindik ez dira konturatu (bestela ez dute inongo errespeturik) herri honetan euskara hizkuntza ofiziala dela. Langile-

entzat iragarki taulan ateratzen dituzten komunikazio guztiak eta etxera bidaltzen duten informazioa gaztelera hutsez baitaude.

Zuzendaritza postuetan ez dago inor euskara dakienik, telefonoz deitzen dutenei beti gaztelera erantzuten zaie, eta gaixoen geletara deitzen bada, ateratzen den tresna ere gaztelera dago.

Beste adibide adierazgarri bat ordenagailuetan dago; gaur egun euskara zuzentzaile ortografikoa bakarrik dago instalatuta euskara zerbitzuan eta bezeroari arreta zerbitzuan. Ematen du beste guztiok idatzi nahi badugu hiztegia behar dugula aldamenen.


Ospitaleak ateratzen duen egunkaria-rena oraindik lotsagarriago da, euska-

rentzat %1 baino ez, gerentearen agurra hain zuzen.

Hemen lan egiten dugunon artean kopuru handi bat euskalduna da, eta informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea daukagu. Gainera, gaixoen artean ehuneko handi bat euskalduna dugu. Beraz, ospitaleak beste jarrera bat hartu beharko luke euskararekiko.

Erakunde ofizial batean holako jarra egotea nahiko lotsagarria iruditzen zait, gaur egun eskubide hori bermatzeko salaketak jartzen egon behar izatea ere ez da oso normala, baina argi izan dezatela euskara hizkuntza normalizatua izatea nahi dugunok tinko jarraituko dugula gure eskubideak aldarrikatzen.

montxo



galdeiozu... ?



TERE SAEZ

Andreako koordinatzailea

Zer gertatu da instituzioek Pekingo Konferentzian emakumearen alde hitzartu zituzten neurriekin?

Kontxi Gutierrez (Iruñea)

Instituzio batzuek gehiago bultzatu dute Mainstreaming-en itundutakoa; hau da, berdintasunaren aldeko ekimenak txoko guztietara heldu behar duela, politika eta gai guztiek genero ikuspegia izan dezaten. Aukera berdintasunerako planak onartu edo berri dituzten erakundetan ikusi da hori. Nafarroako Gobernuak eta Parlamentuak suspensioa dute, gutxieneko horiek ez baituzte onartu. Iruñeko Udalak, berriz, atzera egin du. Baina eskualdeko zenbait udal garrantzitsuak egin dituzte. Laburbilduz, gutxi egin da eta gauza garrantzitsuak daude konpontzeko: bortizkeria sexista, lana... Emakumeen txirotasuna izan zen Pekingo beste gai garrantzitsua, eta hor gauza asko dago egiteko alor publiko eta politikoetan. Ez dago berdintasunik, eta dauden emakumeak ez dira konprometitzen berdintasunaren alde.

Apirilaren 30etik aurrera **Mikel Arteaga • ENBaren Gipuzkoako lehendakaria** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

hirusta



Aitziber Perez de Karkamo

Sarrirekin segituz

Espainiako Literatur Kritikarien Elkarteak Sarrionandiarri eman sariak polemika piztu du. Hobeto esanda, polemika Espainia aldean piztu dute, literaturazale euskaldunek arras ongi baitakite Sarriren lan batek baino gehiagok saritua izatea merezi duela. Baina horrek berdindio. Gutxi axola zaie Espainiako hedabideetako eztabaida guneetan agertu diren bat-bateko literatur kritikariei zeintzuk ote diren idazlearen gainontzeko lanak, zein bere literatur ibilbidearen garapena, zein hobekien menderatzen duen generoa edo antzekoak. Literatura aitzakia hutsa izan da, beste zenbaitetan kirola, musika edota nekazaritza izan diren legez. Begi bistakoa da sariaren harira entzun ditugun diskurtso nekagarriek eduki politikoa besterik ez dutela, eta, beraz, «euskal arazoari buruz» demagogia egiten segitzeko gai ezin egokiagoa topatu dute behin ere.

Gurean, berriz, poza nagusitu da euskal literaturaren irakurleen artean, Sarriren lehen eleberririk etxean eta guretik kanpo aintzat hartua izan delako eta editorialista konstituzionalen gai bihurtu izanari ironiaz begiratu zaio. Polemikak mesede ere egin dezakeela pentsa dezake norbaitek, *Lagun izoztua* irakurri ez duenari leitzeko gogo sor diezaiokeelako propaganda merke honen. Bide batez, kritika saria bera ezagunagoa bihur daiteke eta, ondorioz, idazle sarituek oihartzun handiagoa eskura dezakete. Ongi etorria izan dadila polemika Sarrionandiarrekin batera saritua izan den Kirmen Uriberen poesia liburuaren marketinerako lagungarria bada.

Ongi etorria izan dadila polemika, tabernetan *Sarri Sarri* kantarekin dantzatzen ari ziren diren gazteek Sarri irakur dezaten baliagarria bada; tabernetan, liburutegietan edo edozein herritako paretetako pintadetan.